

Gurasoentzako gutuna. Argibideak eta Protokoloa

Erasmus+ programak onura asko ekartzen duen aukera ezin hobe da, eta konpromiso eta ahalegin handia eskatzen die, ez bakarrik ikasleei, baita irakasleei ere.

Ikasleek eta familiek jakinaren gainean egon behar dute ikasle atzerritarrek etorriko direnean eskola ordu batzuk galduko dituztela, eta beste aste oso bat haiek atzerrira joaterakoan. Beraz, ikasleek aste bi horietan klasean landutakoa berreskuratzeko prest egon behar dute, etxean lan gehiago eginez.

Irakasleok lan hori ikasleei helarazteko konpromisoa ere hartzen dugu. Gelan ematen den materia, nola bidali, zelan jaso eta zuzendu adostuko du irakasle-taldeak.

Ikasleek haien aldetik, konpromisoa hartu behar dute lanak egiteko, eta epean burutu eta entregatzeko.

Erasmus+ programaren barruan hainbat ekintza egiten dira hainbat mailetan (DBH4, BATX1,...) honen guztiaren berri emango zaie eskaintzen den dagokion kurtsoetako familiei, inika bidez. Eta aukeratuak diren ikasleen familiek prozesuan zehar informazio guztia jasoko dute. Hala ere, informazio orokorra gure web orrialdean, ➡ Erasmus+ atalean azalduta egongo da; hala nola, programaren deskribapena, aukeratze prozesua, eta beharrezkoa den dokumentazioa zehaztuta topatu ahal izango duzue bertan.

Dokumentazioa

Atzerrira bidaiatzeko beharrezkoa da gutxieneko dokumentazio bat biltzea:

- **Europako Osasun txartela**, bi urtetarako baliogarritasunarekin. Honako loturan eskuratu ahal da [hemen](#). Eskatu ondoren, egun gutxitan bidaltzen dute etxera.
- NANaren fotokopia eguneratua, data baliogarriarekin. (Hau lehenbailehen ekarri behar da Bidaia-agentzian erreseba egin ahal izateko). **Gurasoen NAN dokumentuen fotokopiak eta telefono zenbakiak** ([Guztiak orrialde berean](#)).
- **Adin gabeen baimena**: eskuratu behar dute Polizian; [ikasle amurriorek](#), institutura dokumentazio guztia ekarri dutenean, eta gurasoek deia jasoko dutenean, Udaltzaingora joan beharko dute soil-soilik sinatzera; aita edo ama (guraso bat) joanda nahiko izango da. Dokumentu bakar baten honela eraman behar dituzte DNIak eskaneatuta.

- Amurriarrak EZ diren beste guztiek Ertzantzara joan behar dute, eta amak eta aitak bertaratu beharko dute, biok derrigorrez. NAN guztiak (gurasoak eta seme-alaba), gurasoen telefono-zenbakiak, hau guztia fotokopiatuta orrialde berean eraman beharko dute, ikastetxearen telefono zenbakia (945393000), irakasle-arduradunen izen-abizenak, eta NAN zenbakia; zein herrialdetara doaz, eta datak idatzita eraman beharko dira baimen-ziurtagiria lortzeko.
- Amurriarrek institutura ekarri behar dituzte NAN kopiak, gurasoenak eta haienak, mugikor zenbakiekin apuntatuta. Erasmus antolatzaile-irakasleek hartuko dituzte dokumentuak, eta Udaltzaingora bidaliko dituzte guztiak batera, gero, dokumentuak eginda daudenean gurasoek Udaltzaingora joan beharko dute dokumentazio guztia sinatzera.
- Amurriokoak ez direnek, Ertzaintzara joan behar dute honako datuekin: NAN-en fotokopiak (Guztiak orrialde berean), ikastetxearen telefono zenbakia (945393000) eta arduradunen izen-abizenak eta NAN zenbakia. Zein herrialdetara doazen, eta datak idatzita eraman behar dira ziurtagiria lortzeko.

ERASMUS+ ZARAOBE Ikasleen aukeraketa

Zaraobeko DBH eta Batxilergoko ikasleak Erasmus+ irteera batera joaten direnean aukeraketa prozesu bat martxan jartzen da. Prozesu honetan Erasmus+ koordinatzailea izango da gidaria eta beste laguntzaile bat izango du, gutxienez. Laguntzaile hauek Erasmus+ proiektuan parte-hartze aktiboa izango dute bukatu arte.

- Kontaketa kuantitatiboa %20
 - 1. ebaluazioa bukatuta egoten bada, 1. ebaluazioko Ingeleseko nota finala.
 - 1. ebaluazioa bukatuta ez badago, aurreko ikasturteko Ingeleseko nota finala kontuan hartuko da.
- Kontaketa kualitatiboa, gutun motibazionala:
 - Karta motibazionalan kontutan hartu beharrekoa
 - Originaltasuna, gutuna idazterakoan gogoia eta interesa erakustea, eta gutunak behar duen garrantzia ematea ikaslearen aldetik (Zuzentasuna, egitura, eta argudioek koherentzia izatea proiektuarekin).
 - Ikastetxeko proiektuetan boluntario moduan parte hartu izana.
 - Kultura eta hizkuntza ezberdinak ikasteko interesa izatea.
 - Kanpotik datorren ikaslea etxean jaso nahi duela ondo arrazoitzea.

- Berdintasun ekonomiko soziala: Ikasleen arteko aukera berdintzeko asmotan, ikasleen mobilitate bakoitzera aurkeztu diren ikasleen artean, ikasle beka jaso dutenak edo familia ugariak izango dira.
- **Penalizazioa**
 - Inikan jarrera edo puntualitate arazoak izatea penalizazio motiboa izango da.
 - Irakasgai pendienteak izatea penalizazio motiboa izango da
 - Inikan falta larriak dituen ikaslea ezin izango da Erasmus bidaira joan.
 - 1. Ebaluazioan suspentsoa izatea, programatik at geratzeko motiboa izan daiteke.